

**SANTURTZIKO UDAL HILERRIAN PANTEOIAK ERAIKITZEKO 8 PARTZELA 50 URTEZ ESLEITZEKO BALDINTZEN PLEGUA, EMAKIDA ADMINISTRAZIOAREN ARAUBIDEAN, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ, ETA ENKANTEAN**

**1.-XEDEA**

Enkante honen helburua zera da, 50 urtez Santurtziko Udal Hilerrian zortzi partzela ematea panteoiak eraikitzeke. Enkantean jarriko diren partzelak honekin batera dagoen planoan zenbakiekin adierazita dauden berberak dira, eta hurrengo neurri hauek dituzte:

ZENBAKIA	TALDEA	NEURRIAK
37	I	440X390 17,16 m <sup>2</sup>
54	I	320X380 12,16 m <sup>2</sup>
15-B	II	365X345 12,6 m <sup>2</sup>
15-D	II	365X345 12,6 m <sup>2</sup>
55	III	315X380 12 m <sup>2</sup>
74	III	330X285 9,4 m <sup>2</sup>
112	III	330X285 9,4 m <sup>2</sup>
53	IV	330X255 8,4 m <sup>2</sup>

Partzelak lursailean birplanteatuko ditu Santurtziko Udaleko Obra eta Zerbitzu Arloko teknikari batek.

**2.- EMATEKO EPEA**

Administrazio-emakida 50 urtez emango da esleipena egiten den egunetik zenbatzen hasita, jabego eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren kaltetan izan gabe.

### 3.- EZARRITAKO KANONETIK GORA

Lizitazio honen oinarritzko prezioa hurrengo hau da:

ZENBAKIA	TALDEA	NEURRIAK	ZENBATEKOA
37	I	440X390 17,16 m <sup>2</sup>	10.296,00 €
54	I	320X380 12,16 m <sup>2</sup>	7.296,00 €
15-B	II	365X345 12,6 m <sup>2</sup>	7.560,00 €
15-D	II	365X345 12,6 m <sup>2</sup>	7.560,00 €
55	III	315X380 12 m <sup>2</sup>	7.200,00 €
74	III	330X285 9,4 m <sup>2</sup>	5.640,00 €
112	III	330X285 9,4 m <sup>2</sup>	5.640,00 €
53	IV	330X255 8,4 m <sup>2</sup>	5.040,00 €

### 4.- PROPOSAMENAK ETA AURKEZPENA

Gutun-azalak Obra eta Zerbitzu arloan aurkeztuko dira 30 egun naturaleko epean Bizkaiko Aldizkari ofizialean enkante-iragarkia argitaratu eta hurrengo lan egunean zenbatzen hasita, 9:00etatik 14:00etara bi gutun-azaletan (A eta B), non hurrengo hau agertu beharko den " \_\_\_\_\_ jaun/andreak egin duen proposamena partzelen enkantean parte hartzeko, Santurtziko Udal Hilerriaren \_\_\_\_\_ zenbakidun partzela".

Epea larunbat edo jai egunean amaitzen bada, proposamenak hurrengo lan eguneko eguerdiko ordu biak arte onartuko dira.

A gutun-azalean honako artikuluko honen 2 zenbakian eskatzen diren agiriak sartuko dira.

B gutun-azalean eskaintza ekonomikoa hurrengo ereduaren arabera:

"Nik \_\_\_\_\_ jaun/andreak,  
\_\_\_\_\_ ko biztanleak, \_\_\_\_\_ zenbakidun

NAN duenak, nire izenean (edo \_\_\_\_\_ren izenean, \_\_\_\_\_ren bidez egiaztatuta), Santurtziko Udal Hilerrian \_\_\_\_\_zenbakidun partzela esleitzeko enkantea arautzen duen baldintza-plegua irakurri ondoren, \_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, guztiz onartzen dut, eta \_\_\_\_\_eko (zenbakitan eta hitzetan) zenbatekoa eskaintzen dut \_\_\_\_\_zenbakidun partzelaren truke”

(Eguna eta sinadura).

1.- Emakida pertsona fisiko guztiek jaso ahal izango dute, baldin eta Santurtziko udalerrian erroldatuta badaude, eta jarduteko gaitasun osoa badute edo legez ordezkaturik badaude.

Esleipena pertsona bakar baten alde egingo da, senar-emazte edo ezkon gabeko bikote egonkorren (lotura zibila) kasuetan izan ezik horrela eskatzen badute, betiere horietako bat ez bada enkante bereko beste panteoi baten behin-behineko esleipenduna.

2.- Lizitatuak A gutun-azaleko partzelen proposamen bakoitzean sartu beharko dute Nortasun Agiria edo berorren fotokopia, notarioak egiaztatuta edo Korporazioaren Idazkaritzan erkatuta. Horrez gain, kontratatzeke debekurik ez duten adierazpen arduratsua idatziz eman beharko dute, Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginean zehaztutakoa betez, azaroaren 14ko Legegintzako 2011/3 Errege Dekretuak onartu zuena.

“Nik \_\_\_\_\_jaun/andreak, \_\_\_\_\_ko biztanleak, \_\_\_\_\_zenbakidun NAN duenak, nire izenean (edo \_\_\_\_\_ren izenean, \_\_\_\_\_ren bidez egiaztatuta), Santurtziko Udal Hilerrian \_\_\_\_\_zenbakidun partzela esleitzeko enkantea arautzen duen baldintza-plegua irakurri ondoren, \_\_\_\_\_ko \_\_\_\_\_aren \_\_\_\_\_(e)an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zena, adierazten dut ez dudala kontratatzeke debekurik Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateginean zehaztutakoa betez, azaroaren 14ko Legegintzako 2011/3 Errege Dekretuak onartu zuena.

(Eguna eta sinadura).

3.- Enkantean beste pertsona baten izenean parte hartu nahi dutenek proposamenean (A gutun-azala) sartu beharko dute ordezkari hori eman egin zaiela adierazten duen egiaztapena, ordezkariak sinatutakoa. Bertan ordezkari ematen zaiola adieraziko da eta ordezkariak onartu egingo du. Idatziarekin batera bion Nortasun Agiriaren kopia konpultsatuta entregatu beharko dira.

4.- Eskaintza berdina aurkeztu duten lizitatzailleentzat bost minutuko aldia zabaldu behar bada nork eskaintza handiagoa egiteko, ordezkariari aurreko atalean ezarritako baldintza berberak eskatuko zaizkio, eta horretarako ordezkariak enkante-ekintzara Nortasun Agiria aldean eraman beharko du.

Eskaintzak goranzkoak izango dira, eta ez da partzela baterako onartuko oinarri gisa ezarritakotik beherako preziorik.

Lizitatzaille batek eskaintza partzela bat baino gehiagorako aurkezten badu, plegu honetan eskatzen diren agiriak (A gutun-azala eta B gutun-azala) egin duen eskaintza bakoitzeko eta horietako bakoitzean aurkeztu beharko ditu.

Lizitatzaille bakoitza partzela bakar baten esleipenduna baino ez da izango.

Panteoi-partzela baten esleipenerako proposatzen denak ezin izango du enkantean parte hartzen jarraitu, nahiz eta gerora bere eskaintzari edo esleipenari uko egin. Hortaz, beste panteoi batzuekin lotuta aurkeztu diren eskaintzak ezin izango dira lizitazioan aintzat hartu. Esleipen-proposamenari gerora uko egiteak ez du berez ekarriko aurreko esleipenaren ondorioz baztertu egin diren gainontzeko proposamenak aintzat hartzea.

## **5.- KONTRATAZIO MAHAIA**

Kontratazio-mahaiaren osaketa hurrengo hau izango da:

Presidentea: Udal Batzaren Alkatea edo berak eskuordetzen duen Zinegotzia.

Bokalak: Udal Zerbitzu Publikoetako Burua edo berak eskuordetzen duen funtzionarioa, Kontu hartzailea edo berak eskuordetzen duena.

Idazkaria: Udal Batzarena edo berak eskuordetzen duena.

Aurkezteko epea amaitzen denean, mahaiak eskaintza bakoitzaren A gutun-azalak zabalduko ditu.

Mahaiak zuzen daitezkeen akats edo gabeziarik antzematen badu aurkeztutako dokumentazioan, beroriek zuzentzea eskatuko du. Dokumentazioa ekarri eta zuzentzeko 3 laneguneko epea emango da, zuzenketa eskatu eta biharamunean zenbatzen hasita. Dokumentazioa Obra eta Zerbitzuetako Arloan aurkeztuko da, baina Posta Bulegoan ere aurkeztu ahal izango da eskaintzen aurkezpeneko adierazitako baldintza berberak beteta. Mahaiak, aurkeztutako dokumentazioa behin kalifikatuta, eta antzemandako akatsak edo gabeziak, hala badagokio, behin zuzenduta, eskaintza bakoitzaren B gutun-azalak zabaldu eta baloratuko ditu saio publikoan. aktarekin batera organo eskudunari helaraziko zaizkio. B gutun-azalak zabalteko eguna, ordua eta tokia Udalaren

webgunean eta Udaletxeko zein Hilerriko iragarki tauletan adieraziko dira. B gutun-azalak baloratu ostean akta eta esleipen proposamena helaraziko zaio organo eskudunari.

## **6.- ENKANTEA**

Behin mahaia osatuta, enkantearen iragarkia irakurriko da eta enkantea bera hasiko da, dena aktan jasoz.

Partzela bakoitzaren enkante ekintzak banan-banan egingo dira, eta denboran hurrenez hurrengoak izango dira, plegu honen 1. artikuluan partzelen lehentasun ordenari jarraituz.

Behin gutun-azalak zabaldua eta mahaia onartuta, partzela bakoitzaren esleipena egingo da euretako bakoitzerako egin den eskaintza ekonomiko onenari esleituz.

Panteoi-partzelaren batean ez bada proposamenik aurkezten edo egindako eskaintza adierazitako hasiera-prezinoa baino baxuagoa bada, enkantea huts deklaratuko da.

Partzelaren batean eskaintza ekonomikoa berdina bada, eta parte hartzaileak ez badira ados jartzen, bost minutuko aldia zabalduko da bertan diren edo legez ordezkaturik dauden lizitatuzaileen artean nor bere prezio altuagoa eskain dezan. Berdinketak bere horretan badirau edo interesdunak han ez badaude, mahaia esleipen proposamena egingo du horien artean Obra eta Zerbitzuen arloan aurkeztu zen lehenengo proposamenaren alde.

Gutxienez BERROGEITA HAMAR euroko tantoak eskainiko dira irteera prezioen gainean.

Proposatutako esleipendunak partzelari uko egingo balio gutun-azalak zabaltzeko ekintzan edo horren ostean baina esleipena burutu baino lehen, proposatutako litzateke panteoi horri dagokion partzela bigarren eskaintza hobereana egin duenari esleitzea, baldin eta ez balitzaio eman edo ez balitz proposatu beste panteoi-partzela baten esleipendun gisa. Proposatutako hurrengo esleipendunak uko egingo balio, kontratazio-organok partzela hori huts deklaratuko luke.

## **7.- ESLEIPENA ETA PREZIOA ORDAINTZEA.-**

Enkante-mahaia Tokiko Gobernu Batzarrari jasotako akta eta esleipen-proposamena igorriko dizkio. Esleipen-akordioa Udaletxeko iragarkien taulan argitaratuko da eta idatziz jakinaraziko zaie esleipendunei.

Esleipenaren prezioa Udal Diruzaintzan ingresatu beharko da, dirua udaletxearen kontuan sartuz, hogeita hamar (30) eguneko epean esleipenaren jakinarazpena egiten den egunean zenbatzen hasita, eta diru-sarrera hori ezinbesteko baldintza izango da partzelaren titularra izateko eta horren jabetza hartzeko. Diru-sarrera ez bada adierazitako epearen barruan egiten, eskubidea iraungitzat hartuko da.

Esleipendunek Santurtziko Hilerriko Araubidean dauden xedapen guzti-guztiak zein ezar daitekeen udalaren bestelako araudian daudenak bete beharko dituzte, bai eta aipatu araudian sar litezkeen aldaketak eta gai honi buruz onar litezkeen beste batzuk ere.

## **8.- EMAKIDAREN MUGA:**

Emakida emateak ez dakar inondik inora ez berau besterentzea, ez horren karga, Santurtziko Udalari itzuliko zaiona emakidaren epea amaitzen denean. Emakida jasotzen duena derrigortuta egongo da batetik, erabiltzea xede duten ondasunak libre eta hutsik uztera, Administrazioaren esku, eta bestetik, berorri aitortzea betearazteko eta derrigortzeko ahalmena.

## **9.- UDALAREN GAITASUNA.-**

Santurtziko udala gaituta dago edonoiz emakidaren xede izan diren ondasunak eta eraikitakoa ikuskatzeko, eta emakida ebatzita edo iraungia dagoela adierazi ahal izango du berau amaitu aurretik, araudian ezarritako kausaren bat agertzen bada.

## **10.- EMAKIDAREN TITULARRA DENAREN ESKUBIDEAK**

Emakidaren titularrak hilobiratzea, hilobitik ateratzea eta hilobian trasladoak egitea eskatu ahal izango ditu Udalak horretarako eskatzen duen tramitearen eta indarreko araudiaren arabera ezarri beharreko tarifen kalterik gabe.

Horrez gain, Santurtziko Udal Hilerriaren barne-araudiaren arabera dagozkion eskubideak izango ditu.

## **11.- EMAKIDAREN TITULARRAREN BETEBEHARRAK**

Plegu honetan ezarritako beste batzuen eta Udal Hilerriaren barne-araudiaren kalterik gabe, emakida jaso duenak derrigorrez hurrengo hauek bete beharko ditu:

- a) Panteoia bi urteko epean eraikitzea, berau esleitzen den egunean zenbatzen hasita, betiere gordez Barne-Araudian ezarritakoa. Debekatuta

dago beren-beregi dagokion lizentzia edo baimena ez duen edozer eraikitzea.

b) Dagokion araudian eraikuntzarekin edo kontserbazioarekin zerikusirik duten gaiei buruz ezarritako arauak betetzea, HAPOkoak barne.

c) Emakidaren epea amaitzen denean, abandonatzea eta Udalaren esku uztea, bai partzela bera, bai horren ondorioz egindako eraikuntzak, eskubidea iraungitzeak berez ekarriko ez duela titularrak konpentsazio edo kalte ordainik jasotzea.

## **12.- PANTEOIAREN ERAIKUNTZA ETA KONTSERBAZIOARAKO BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK**

1.- Panteoiak lur azpian sakon, lur azpian baina ez oso sakon edo dagokion kale nagusiaren sestran eraikiko dira. Azken kasu honetan eraikitakoak ezin izango du 3 metrotik gorako altuera izan, sarrerako atearen ardatzari dagokion sestraren eta eraikuntzarik altuenaren zati altuenarenean artean.

Panteoietako nitxoak barrukoak izango dira, eta bertara ate nagusitik eta panteoiaren barruko aldetik sartu behar izango da.

2.- Debekatuta dago beren-beregi nitxo formadun panteoiak eraikitzea, hauek kanpotik zuzenean ikusteko moduan egongo direlarik, kale nagusitik sarbidea izanik.

3.- Udalak, panteoien berdintasuna gordetze aldera, zehaztu ahal izango du kasu bakoitzean zer eraikuntza mota egingo den, artikuluko honen 1.puntuaren ereduari jarraituz.

Panteoien eraikuntza eskubide funerarioaren titularraren kontura egingo da. Horretarako eta hori baino lehen, Erregistro, Informazio eta Jakinarazpenen Administrazio Unitatean obretarako udal lizentziaren eskabidea aurkeztu beharko da, eta horrekin batera, egin nahi den panteoiaren plano edo argazkien hiruna ale ere bai.

Obretarako lizentzian aipatu hilobien edo panteoien edukiera zein den zehaztuko da, eta izango da bertan dauden apal kopuruko hilobiratze kopuruaren arabera. Behin hori eginda, lehenago ezarritako eskubide-tasak ordainduta eta obrak hasi baino lehen, interesatuak udal teknikariei eskatuko die alineazioak eta sestrak zein diren adierazteko, eta hauek markatu egingo zaizkio Hilerriaren Administrazioarekin eta Koordinatzaile Arduradunaren aurrean.

Lanak behin amaituta eta Udal Teknikariek horiek ikuskatuta, lurperatzeak egiteko baimena emango zaie, Alkatearen Dekretuaren zein Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren eta Osasuneko Tokiko Buruaren txostenaren bidez, 1974ko uztailaren 20ko Hildakoen Polizia Sanitarioaren Araubideari jarraituz.

Obra mota guztiek, panteoiak konpontzeko direnek barne, jaso beharko dituzte bai onarpena, bai udalaren lizentzia.

Behin obrak amaituta, eraikitzaileek edo bestela, emakidadunek lurrak, harriak, hondakinak eta orokorrean, erabilitako materialen edozein hondar kendu beharko dituzte. Horrez gain, konpondu beharko dute ibilgailuz edo bestelako elementuz kalean, instalazioetan, eraikuntzetan eta abarretan eragindako kalte guztiak.

Titularrek edo horretarako baimena duten pertsonak panteoiak zaindu eta apaindu ahal izango dituzte, baina horretarako, udalaren baimena beharko dute.

Lore edo balio ez duten bestelako gauzen hondarrak Hilerriko langileek adierazten duten tokian utzi beharko dira.

### **13.- EZARRI BEHARREKO ARAUDIA**

Plegu honek zehazten ez dituen kasuetarako Santurtziko Hilerriko barne araubidean, tokiko erregimen-araudian eta ezarri daitezkeen gainontzeko xedapen orokorretan xedatutakoa ezarriko da.

### **13.- PLEGUAREN ETA ENKANTE IRAGARKIAREN PUBLIZITATEA**

Plegu hau jendaurrean 30 egunez jarriko da, berau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko aukera egon dadin, eta hauek Tokiko Gobernu Batzordeak ebatziko ditu.

Aldi berean enkante-iragarkia argitaratuko da, lizitazioa, berriz, behar beste atzeratuko da, baldin eta baldintza-pleguaren aurka erreklamazioak ezartzen badira.